

LINO AKESOLO ITZULPEN LANETAKO MAISUA

Lino Akesolo euskararen maisu handienetako bat izan zela esatean ez diogu ezer berririk. Hura eta haren idazlanak ezagutu dituztenak bat etorriko dira horretan. Areago oraindik: geure euskal lanetan, itzulpenetan nahiz bestelakoetan, sarri izan ohi ditugu zalantzak: *bau nola ote da? Zuzen ote da hone-la?* Itzulpenetan batez ere, erraz kutsatzen zaigu jatorrizko hizkuntzaren, erdararen, joera... Horrelako duda-mudatan, gidari ziur baten bila hasten gara geure baitan; argi egin diezagukeen maisu baten bila. Niri sarri etortzen zait gogora Lino Akesolo. Ez zen unibertsitateko irakaslea, baina euskal sena, jakinduria eta zentzu ona beregan zituen. Ia inork ez bezala... Harekin harremanak izan genituenok, batez ere etxekook, gogoan dugu galderaren baten aurrean hartzen zuen jarrera. Ez dakigu zer erabiliko zuen barne aldean: bere jakinduriaren altxorra erakusten lotsa balitz bezala edota halako galdera berari egin beharraz harriturik agertzen zela dirudi. Izan ere, irakurle handia zen eta oroimen aparta zuen; horregatik informazio itzelaren jabe zen, zentzu logiko harrigarritz gobenatzen zuena. Lehenengotan, zakar antzera agertzen zen galderaren aurrean, purrustadaka-edo... Baina haize-bolada haren ondoren, barrutik, bere altxor-kutxatik, onen-onena aterako zuen.

Idazle zaharrak, Iparraldekoak nahiz Hegoaldekoak, gutxi bezala ezagutzen zituen. Gure histori puskak, iraganean gal-